

*Erreportajea***ALOKAIRUAREN GILTZA**

 Testua eta argazkia: *Kerman Garralda Zubimendi*



Julen Saldaña eta Markel Markos lagunak ziren bazkide izan aurretik. Konfiantza izatea ona dela diote, baina arriskutsua ere izan daitekeela ohartarazi dute.

*Markel Marcos eta Julen Saldaña ordixiarrek Oasis Living enpresa martxan jarri zuten uxtailean. Alokairura bideratutako etxebizitzak biziberritzen dituzte, biofilia teknikan oinarrituta. Goiekik ekintzailatza arloan aipamen berezia eman die.*

**E**txean bezala inon ez dela izaten esaten da, baina etxearen araberako hobe edo okerragoa izan daiteke. «Etxe bat hotza denean, xarmarik gabekoa, iristen zara eta puntu. Baina guk nahi dugu maizterra etxera iristerakoan positiboki eragitea, erlaxatzea, ongi sentiaraztea... Oasi bat izatea», azaldu du Julen Saldaña Oasis Living enpresako sortzaileetako batek. Markel Marcos da bestea. Goiekiren Enpresa Ekimen Berrien Sariketan proiektu onenaren aipamen berezia jaso berri dute garapen agentziaren eskutik.

Etxebizitzaren bat alokatu ezinik dabilen errentatzaileentzat egiten dute lan. Oasis Livingek bere gain hartzen ditu etxebizitza bat alokatzeak dakartzan lanak, ardurak, gastuak eta buruhausteak, etxearen jabetza nagusiarena izaten jarraitzen duen arren. Beharra handia dela aipatu dute, eskaintza txikia den arren. «Jende asko etortzen da gurea, soslai askotakoak». 681 930 144 telefonoaren edo [info@oasisliving.es](mailto:info@oasisliving.es) helbide elektronikoaren bidez jar daitezke beraiekin harremanetan. «Laster webgunea eta sare sozialak prest izango ditugu. Bezeroek asko eskatzen dute, gure lanak ikusi ahal izateko», aipatu du Marcosek.

## 7

**Birgaitutako etxebizitzak.**

Oasis living plazaratu zutenetik zazpi etxebizitza birgaitu dituzte. Ordizian bertan, horietako bat. Zortzigarrena ere bidean dute. Lehen ere beraiekin lan egin zuen errentatzaile baten eskaria da. «Oso pozik gaude. Jabeek eta maizterrek egin diguten *feedback*-a oso positiboa izan da».

Hasteko, etxebizitzak birgaitu egiten dituzte, bigarren bizitza bat emateko. «Maizterrei etxebizitza duin bat eskaini nahi diegu, egoera eta prezio onean», laburbildu du Saldañak. Biofilia teknika erabiltzen dute horretarako: altzariak landarezarekin, egurrezko akaberekin eta argiarekin uztartzen dituzte. Naturarekin harremana izanda etxe-koak alaiago bizi direla defendatzen dute. Hirugarren baten laguntza izaten dute horretarako, barrualdeetako diseinuetan aditua dena. Logeletan zentratzen dira nagusiki, egongelak edo sukaldeak baztertu gabe. «Duela urte batzuk ez, baina egun denbora gehiena logeletan igarotzen dugu: lana, ikasi, aisia... Denerako erabiltzen dugu. Harmonia ematen diegu, deskantsatzeko, produktiboak izateko...», aipatu du Marcosek. Etxe bakoitzak bere ezaugarriak dituen arren denetan estilo berdinari eusten diote, marka sortzeko. «Gustatuko litzaiguke begirada bakarrean identifikatu ahal izatea etxe hau Oasis Livingek egokitu duela».

**Alokairua, gora**

Ez dira dekoraziora mugatzen, ordea. Etxebizitzaren mantenimendua ere euren kontu hartzen da. Kuoten ez ordaintzerik edo okupaziorik gertatuko balitz, berdin. Ez dute inolako arazorik izan, kontuak kontu. «Konfiantza osoa dugu maizterrengan. Ez dugu uste borondade txarrik dagoenik. Bizitzeko toki atsegin bat eskaintzen diegu, eta epe luzerako bizi nahi dute bertan», azaldu du Saldañak.

Alokairua gutxietsita dagoela uste dute. Horregatik, Goierrin alokairu-merkatua murrizta dela diote biek, eskaria egon badagoen arren. «Arazo la-

rria da hori», ohartarazi du Saldañak. «Ez dago aukerarik. Erosi beste erremeriorik ez da eskaintzen. Eta sarrerak oso altuak direnez, dirua aurreztu arte gurasoen etxean egotera behartuta daude gazte asko», sakondu du. «Edo Goierritik joan, eskaintza handiagoa den beste norabaitera», gaineratu du Marcosek. Alokairuan eskaintzen diren etxeak, sari, gutxi zainduta egoten direla ere aipatu dute.

Joera aldatzen ari dela uste. Gazte askok alokairua lehenesten dute euren egoera profesional eta ekonomikoagatik, eta agintariak alokairuaren aldeko politikak egiten ari direla diote. Eusko Jaurlaritzak Gaztelagun proiektua martxan du 18 eta 35 urte bitarteko gazteen emantzipazioa ahalbideratzeko; tokian tokiko udalek ere alokairuaren kuotak merkatzeko hainbat laguntza lerro dituzte. «Aldeko haizea dugu», esan du Marcosek, eta aurreikuspen onak dituzte. Negozio-bolumena haztea espero dute.

**«Esan izan digute zer zortea izan dugun. Barkatu, baina zortearen bila joan egin behar da»**

**Markel Marcos**

*Oasis Livingeko bazkidea*



**«Maizterrei etxebizitza duin bat eskaini nahi diegu, egoera eta prezio onean»**

**Julen Saldaña**

*Oasis Livingeko bazkidea*

## Lanpostuak utzi zituzten euren proiektuaren bidea jorratzeko

Markel Marcosek eta Julen Saldañak euren lanpostuak zituzten proiektua garatzen hasi zirenean. Saldañak ingeniari ikasi zuen eta Marcosek Lidergotza, ekintzailetza eta berrikuntza. «Argi genuen enpresa propioa eraiki nahi genuela eta bizimodua hortik atera», aipatu du Saldañak.

Duela urtebete inguru hasi ziren elkartzeko, larunbat goizetan, senitarteko batekin elkarbanatutako bulego batean. «Gakoa produktu edo zerbitzu errentagarria topatzea da», hasi da Marcos. «Ez duzu ezer asmatu behar. Nahikoa da existitzen den zerbaitekin hobetzea, berritzea». Alokairuen munduan zeregina bazegoela ikusi, eta horri heldu zioten. Uztaileko lau proiektu zituzten esku artean. Euren lanpostuak utzi eta enpresa sortzea erabaki zuten, negozioari buru-belarri heltzeko.

Ingurukoek zorotzat hartu zituzten. «Lehenengo erreakzioa ez da

ona: 'Nora zoazte? Seguru zaudete?' esaten dizute», aitortu du Marcosek. «Uste dut oso kontserbadoreak garelara. Oso zabaldua dago unibertsitate joatearen, ikasitakoaren inguruko lanpostu finko bat lortzearen eta jubilatu arte hor lan egitearen ideia», osatu du Saldañak. «Baina emaitzak iristen direnean ondo egin dugula esaten digute».

Fruituak lortzeko «mugitu» beharra dagoela azpimarratu dute. «Esan izan digute zer zortea izan dugun. Barkatu, baina zortearen bila joan egin behar da». Saretzeak garrantzi handia du beraientzat, asko lagundu dietela diote. «Norbaitengana zozzen dena irabazteko duzu».

Laguntza ekonomikoa ere izan dute bidean. Goiekirena, esaterako. «Enpresa bat sortzeko erraztasunak egon badaude. Baina desinformazio handia dago, gazteen artean bereziki. Jendeak ez daki zein laguntza dauden», harritu da Saldaña.